



NIK, ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ, ZUMAIA UDALEKO BEHIN BEHINEKO

IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT

2023ko urtarrilaren 26ko Ohiko Osoko Bilkuran ondorengo irizpena onartu zela ondorengo botoekin (aldeko botoak 8 EH Bildu; abstentzioak 6 EAJ-PNV).

“ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO LURZORUAREN ERABILERARI ETA ERAIKUNTZARI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAREN 67. ARTIKULUAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, AITA MARI AUZOARI DAGOKIONA”.

LEHENA: Zumaiako Arau Subsidiarioetako lurzoruaren erabilerari eta eraikuntzari buruzko ordenantza orokorraren 67. artikulua aldaketari hasierako onespena ematea, Aita Mari auzoari dagokionez, espedientean jasotzen den moduan.

BIGARRENGOA: Udal-Ordenantza horren Aldaketa jendaurrean jartzea eta interesdunei entzualdia ematea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan argitaratuta, 30 eguneko epean erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Horiek Udalbatzak ebatziko ditu. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkuraren berariazko akordiorik behar izan gabe.

Aldi berean, udal-ordenantzaren testua Udalaren web-atarian argitaratzea, eragindako herritarrei entzualdia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

Hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioetarako, ziurtagiri hau eman dut,

Zumaian,

IDAZKARIA,

O.E. ALKATEA,

Dokumentu kod.	2022KOFI0002-H23/00022
CUDO kodea	000.0081.AAAADNHM.S.zbhG
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADNHMS.zbhG